

# DIRU SARRERAK

**Aktiboen salmenta** da gure enpresaren diru-sarrera, hain zuzen ere, bigarren eskuko produktuak dira gure aktiboak. Bezeroak ekarritako bigarren eskuko produktuen balioaren %50a itzuliko zaio txeke bidez eta horri esker guk irabaziak lortuko ditugu. Arestian esan bezala, hainbat motatako produktuak izan daitezke eta horren arabera prezioak aldatu egingo dira. Bestetik, esan beharra dago gure produktuek prezio finkoa edukiko dutela, gure dendara sartzen diren momentuan baliorazioa egingo diegu eta produktuaren jabe ohiari txekea ematen diogun momentutik ez da prezioa aldatuko. Jakina, bigarren eskukoak izanik, prezioa beste dendekin alderatuta, merkeagoa izango da. Hala eta guztiz ere, beharpenak egon daitezke urtean zehar.



Bestalde, larunbat atsaldetan egingo ditugun produktu jasagarriak nola egiten diren irakatsiko dugun ikastaroetatik lortuko ditugu diru-sarrerak. Tailer egun bakoitzeko pertsona bakoitzari bost euro eskatuko dizkiogu saioaren truke eta bertan erabili beharreko produktuak etxetik ekartzeko eskatuko diegu guri gasturik sortu barik. Eta noski, egindako produktuak norberak bere etxera eramateko aukera izango du. Kontuan izan behar da, astero egingo direla tailerrak eta beraz, norberak erabakiko duela zein ikastarotan parte hartu.

Hots, hilabetero ez dugu diru kopuru bera lortuko ez tailerrekin ezta produktuen salmentarekin baina gutxi gora behera 2200€ lortu beharko ditugu minimo.

Enpresa aurrera joan dadin, hasiera batean 3500€ko inguruko inbertsio bat egin beharko dugu. Horretarako bost soziorik ekarpena berdina izango da, 500€koa, aldi berean 200€rekin baliokidea den produktu kantitatearen erakarpena egingo du bakoitzak, horrela 2500€ko oinarria izango dugu eta aldi berean bankuari 2000€ko mailegu bat eskatuko diogu. Hortaz, 1000€ko erreserbak izango ditugu.